

enjoy English

ZER DA ENJOY ENGLISH?

Enjoy English aisialdiko eskaintzaren barruan kokatzen den programa da. Ikastolan egingo den ikastaroa da, udaleku irekiaren eskema izango du, jatorrizko ingeles hiztunak gidatuta.

- 5 eta 12 urte bitarteko ikasleentzat prestatua (4 urtekoentzat ere presta daiteke).
- Noiz: 3 edo 4 astez udako oporretan.
- Goizeko 9:30etatik 13:30ak arte (ordutegi malgua eta zaintza zerbitzua eskaintzen da).



HELBURUAK

- Ingelesezko komunikaziorako gaitasunak lantzea, jolas dinamikaren bitartez.
- Jolasaren bidez aurrez aurreko komunikazioan eragitea eta talde harremana indartzea.
- Bakarka zein taldean, ondo pasatuz ingelesez hainbat adierazpen kultural sortzea.
- Jatorrizko ingeles hiztunak izango ditugula baliatuz, atzerriko beste kulturen eta euskal kulturaren arteko elkartrukea sustatzea.

PROGRAMA DIDAKTIKOA

- Ahozko hizkuntza, ulermena, hizkuntz jarioa, ahoskera, hiztegia...
- Gela barruko eta kanpoko jolasak.
- Ipuin kontaktak.
- Antzerkiak.
- Proiektuak.
- Irteerak.
- Begirale gidak: ebaluaketa eta berrikuntza



TALDEKATZEAK

- **A taldeak : 11 eta 13 ikasle artean.**

5, 6, 7 eta 8 urte bitarteko ikasleak. (HH3, LH1, LH2)


- **B taldeak : 13 eta 15 ikasle artean.**

8, 9, 10, 11 eta 12 urte bitarteko ikasleak. (LH3, 4, 5, 6)

Talde bakoitzeko hezitzaile bat.



EGITURA



- **SUPERBISOREAK:** Ikastolen elkarteko ordezkariak dira. Material didaktikoak sortu eta bai monitoreei eta baita koordinatzaileei beharrezkoa duten laguntza eta gidaritza eskaintzen diete momentu oro.

- **KOORDINATZAILEAK:** Ikastolan egongo dira eta proiektuaren arlo guztiak koordinatuko duten pertsonak dira: ekintzak, irteerak, monitoreak, ikasleak, familiak... Ikastolen Elkartearekin harreman zuzena izango dute.
- **MONITOREAK:** Ingeles jatorrizko hiztunak dira. Denek daukate hurrekin eskarmentua eta udalekuak iraun bitartean bertako familiekin biziko dira.
- **FAMILIAK:** Familien haurrak programan parte hartzeaz gain, familiekin ere aktiboki parte hartzen dute programan, monitoreak beraien etxeetan hartuz, oso esperientzia positiboa eta aberasgarria delarik familiako kide guztientzat.